

EDITORIAL

EUSKALDUNOK ETA GURE MENDIAK

Mendiekin harreman sendoak dituen herri bat gara. Mendiak gure inguruaren, gure bizitza eta historiaren zati bat dira. Haran bakoitzaren nortasuna taiutzen dute, gure alde, auzo edo herri bakoitza banan-banan bereiztuz. Gure jendearen izakerari tankera berezia ematen diote. Lurrarekin bat egin arazten gaituzte. Ia-ia denek ditugu gure sustraiak hor, geure mendietako leporen batetan emanda zuhaitz, ota, errekatxo eta behelainoen artean. Eta gailurrerantzago igoz gero, itsasoa ikusten da iparraldean.

Ez dira bakarrik menditalderik handienak eta ederrenak: Pirineoak, Aralar, Aizkorri, Gorbeia... bezalakoak, ez; gure herriko komunitate bakoitzak du «bere» mendia. Mendi hori da munduan daudenean politena (eta inon politagorik badago, gureak badauka «zeozer» besteek ez daukatena) eta hantxe egiten da erromeria jaiegunean; mendi horretako landa batetan bizi omen ziren lamiak, mamarroak eta basajauna; mendi horrek inoiz inor hondoraino heldu ez den leize bat du; mendi hori da aititaren anaia bat hil zen mendia; mendi horretako gailurrera heltzen ginen honenbeste denboran etxetik arineketan joanda; mendi horretara heldu zen ez dakit nor postura bat eginda sinestu ere ezin daitekeen oso minutu gutxiko errekor batetan; mendi hori da Alpeetan gaudenean gogora etortzen zaiguna; mendi horretan, hain ederki ezagutu arren, bidea gal dezakezu errez-errez behelaino handiak daudenean, Belate-Belate ibilaldia egiterakoan beti mendebalderantz jotzen duenaren kasua bezala.

Halako batetan «Euskal Herriko mendi»ez ale oso-oso bat atera ahal izan dugu, 1983 Pyrenaica lehiaketaren ondorio bezala (37 artikulua eta 500 diapositiba) eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendari-itzak, berriz ere, emandako laguntzari esker. Ea gure mendien erakusketa hau zerbait kontatzeko dutenei gogoia berotzeko den.

Holakoak dira gure herriko mendiak.

LOS VASCOS Y NUESTRAS MONTAÑAS

Somos un pueblo que en una gran parte está fuertemente influido por nuestra relación con las montañas. Forman parte de nuestro paisaje, de nuestra vida, de nuestra historia. Conforman la personalidad de cada valle, individualizando a cada uno de nuestros pueblos. Imprimen un estilo peculiar a la idiosincrasia de nuestra gente. Nos hacen identificarnos con el suelo. Prácticamente todos acabamos teniendo las raíces en la ladera de alguna de nuestras montañas, entre árboles, argomas, arroyos y niebla. Y si subimos un poco hacia la cumbre, al norte se ve la mar.

No son sólo los mayores y maravillosos macizos: Pirineos, Aralar, Aitzgorri, Gorbea... Prácticamente cada comunidad de nuestro país tiene «su» monte. Ese monte que es el más bonito del mundo (bueno, quizá haya otros que igual son más bonitos, pero el nuestro tiene «algo» que le hace especial); ese monte donde se celebra la romería el día de fiesta; ese monte que tiene una campa donde dicen que vivían las lamiás, los mamarros o el basajaun; ese monte que tiene una sima que nunca se ha llegado hasta su fondo; ese monte donde se murió uno de los hermanos del abuelo; ese monte que es el que más veces hemos subido; ese monte a cuya punta llegábamos corriendo desde casa en tanto tiempo; ese monte que una vez por apuesta no-sé-quién llegó en el increíble récord de tan pocos minutos; ese monte en el que, a pesar de conocerlo tan bien, te puedes perder perfectamente el día de niebla cerrada, como quien hace la travesía Belate-Belate yendo siempre hacia el Oeste.

Por fin podemos sacar un número entero dedicado a las «montañas de Euskalherria», como resultado del concurso Pyrenaica 1983 (37 artículos y 500 diapositivas) y gracias a la ayuda recibida, otra vez, de la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco. Esperamos que esta exposición de nuestros montes sirva para animar a colaborar a los que tienen cosas que contar.

Así son las montañas de nuestro país.